

FUNTSEZKO JARDUERAK

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure proiektua arrakastatsua izan dadin, hainbat elementu funtsezko dira. Lehena **plangintza sendoa** da, aurreikusitako pauso guztiak zehaztuz eta ekoizpen-prozesuaren, bezeroaren jarraipenaren eta finantza-kudeaketaren alderdiak kontuan hartuz. Bigarrena da **etengabeko jarraipena**, hau da, prozesu bakoitza modu erregularrean monitorizatzea, arazoak goiz antzematea eta hobekuntza etengabeak aplikatzea.

Halaber, ezinbestekoa da **talde motibatua eta konprometitua** izatea, guztiek proiektuaren helburuak baneratzuta eta ardura sentimendua izanik; horrek taldekideen arteko koordinazioa eta errendimendu altua bermatzen du.

Azkenik, gure proiektuak behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoa da **ezagutza teknikoaren kudeaketa**; hau da, diseinu pertsonalizatua, ekoizpen-prozesua eta bezeroarentzako gomendioak modu profesional eta seguruan garatzea. Elementu hauek guztiak modu koordinatuan egiten badira, gure ferulak arrakastaz ekoiztuko dira.

- **Funtsezko jarduerak eta prozesuak:**

1. **Ekoizpena:**

- Ferula diseinua pertsonalizatua bezeroaren hortz-moldeetan oinarrituta.
- Produktuaren prototipoak eta ekoizpen kopuru jakin bat sortzea.
- Produktua entregatzea bezeroari, higiene- eta segurtasun-baldintzak beteta.

2. **Arazoak konpontzea:**

- Pazienteen behar eta kexak modu eraginkorrean kudeatzea.
- Ekoizpen prozesuetan sortzen diren akatsak azkar identifikatzea eta konpontzea.
- Etengabeko prestakuntza teknikoa eta ezagutzaren eguneraketa.

3. **Plataforma edo sareko jarduerak:**

- Webgunea kudeatzea, mantentzea eta sustatzea.
- Informazio eguneratua ematea pazienteentzat (esaterako, erabilera-jarraibideak, eskaerak jarraitzea).
- Marketin digitalaren bitartez produktua promozionatzea.

Kanpoko enpresen laguntza:

- Produktuaren ekoizpen fisikoaren zati bat (materialak edo fabrikazioa) kanpoko hornitzaileei eman dakioke. Adibidez, modeloaren 3D inprimaketa.

Lehentasunak:

- Lehentasuna produktuaren kalitatea eta erabiltzailearen segurtasuna bermatzea da.
 - Bigarren mailakoa da plataforma digitalaren promozioa eta gestioa.
-